

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Ostalari gozoak

ZITRIKO USAINA zabaldu samarra da landareetan. Zitriko usaina ikaragarri gustukoa du jendearen sudur mintzak. Beste animalien mintzetan edo sudur sabaie-tan zer sentipen edo zirrara eragiten ote duen ez dugu berehalakoan jakingo. Jateko behintzat, ez dira gustuko jaki. Usain bortitz antzekoa duten landareak ez ditu hola eta hola jango belarjaleak. Sudur sabaiaaren txoratzai-leak ahosabaiak atzera botatzen ditu, nonbait.

Landareak ez dira ikuspegi antropozentriko motz orokortuenaren arabera jaki soilak. Ekosistemen sistemek iraun eta garatzeko, biotopoetan topo egiteko, eta landare jendearen jendarteek bizi ahal izateko... Bizidun askok egiten du topo sistema eta jendarte horietan: intsektu, hegazti, arrain, bakterio, birus, onddo... Horiek badakite: bizitzea ez da jatea soilik.

Landareak ere badaki. Bortitz arin edo fin, bere burua usainez janzten duen landareak zertan ari den badaki; usaina sortzeko energia hori ez du ez alferrik xahutuko. Ahosabaia minduko dion animalia hori uxatu eta beste batzuk erakarri nahiko ditu. Horientzat landareak, bere usaina gorabehera, habia babes lehorpe altzo



Limoiondoa, *Citrus x limon*.

etxe ezkutaleku aterpe ohe itzal geriza besape gordeleku ohantze zulo dira. Biga gorriren baten, moxal jostalariren baten, orein izuren baten, asto zuriren baten, arkazte mozo-lorearen baten, ahardi txatxuren baten hozkatik urrutiratu nahi dutenek usaindun horietan babes hartuko dute. Ez denek, ordea. Usaina usaintzat dutenek, kirats zaienek ez. Koska polita!

Babestu-uxatu jokoa, geure jendartean ederk asko baliatzen dakiguna, landare jendearekin erabiltzen ikasi behar dugu. Baratze-soroetan gure landareak bazkatzera datozkigun arerioekin, adibidez. Guretzat usain atsegina eta arerioentzat kiratsa.

Zitriko usain atseginera itzuliz, ez kai-limoia (*Thymus x citriodorus*), Mexikoko laranjondoa (*Choisya ternata*), verbena limoiusaina edo Luisa-belarra (*Lippia citriodora*), sasi laranja lorea (*Philadelphus coronarius*), benetako zitrikoen sendi osoa (*Citrus* sp.) eta abar luze bat erabili dezakegu arerioak gure landareetara ez hurbiltzeko barrikada gisa.

Bada beste hamaika. Hamaika usain eta landare: menda edo batanak, geranio edo zaingorriak...



XX. mendea

Mende horretan zabaldu zen kiwia (*Actinidia deliciosa*) mundura. Txinatik mundura. Mendearen lehen urteetan iritsi zen Zeelanda Berrira, fruitu honi egun duen sona eman zion herrira. Handik Ameriketara, Europara... Gaur egun kiwi gehien Europan jaten da eta munduko ekoizle handiena Italia da. Euskal Herri atlantikoan ondo egokitu da landarea, hazteko lur eta klima aproposak topatu ditu hemen ere.

Galdera batzuk bota nahi ditut, baina: noiz iritsi zen kiwi landarea (kiwiondoa deitu beharko ote diogu?) Euskal Herrira? Noiz landatu ziren lehen kiwiak hemen? Eta non aldatu ziren? Nork ekarri eta jarri zituen? Nik galdera hauen erantzuna ba ote dakidanaren susmo xume bat badut, baina inork ba al du zalantza hauek argitzeko biderik? Gure nekazaritzaren historiak eskertuko dio eta nik, non edo handik, sariren bat emango nioke...



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Lorezaintza proiektuak
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 · Faxe: 943 79 49 12 • lorelan@euskalnet.net